Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko apirilaren 3a, osteguna — 64 — Jueves, a 3 de abril de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEZOKO UDALA

*Iragarkia*

Lezoko Tokiko Gobernu Batzordearen 2025eko urtarrilaren 28ko akordioa non onartzen diren 2025eko Lezoko Udalaren dirulaguntza irekien deialdiaren oinarriak.

OINARRI OROKORRAK

ZIOEN AZALPENA

Lezoko Udalak euskararen, gizarte zerbitzuen eta kirolaren arloan dirulaguntzak ematea jasotzen du 2025eko udal aurrekontuetan. Laguntza horien bidez, udal interesekotzat jotzen diren alor eta diziplinetan hainbat elkartek, entitatek eta norbanakoek egiten dituzten askotariko ekintzak edo jarduerak babestu nahi dira.

Eman beharreko dirulaguntzen bidez, udalak zenbait alorretan esku hartzen lagundu nahi die elkarte, entitate eta norbanako horiei.

Horregatik guztiagatik, Lezoko Udalak, bere aurrekontu baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du, arestian aipatu arloetan proiektu eta hainbat jardueretarako dirulaguntzak emateko.

Deialdi honek hainbat dirulaguntza programa jasotzen ditu agiri bakar batean, dirulaguntzak hartuko dituzten elkarte, entitate eta norbanakoei araudi erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko. 9 dirulaguntza programa jasotzen dira oinarri espezifikoen atalean.

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Oinarri orokorrak, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritakoaren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2018-11-06, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2024-02-28) eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren araudia 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi guztienak diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, eman beharreko zenbatekoa, dirulaguntza zertarako den justifikatzea, dirulaguntzak ordaintzea eta abar.

2. Oinarri espezifikoak, euskara, gizarte zerbitzuen eta kirol sailak bere eskumeneko alorrean ezartzen dituztenak dira; bertan, besteak beste, laguntza programa bakoitzaren xedea eta berezitasunak, dirulaguntza baloratzeko irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria zehazten dira.

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Anuncio*

Acuerdo de 28 de enero de 2025 por el que se aprueban las bases de la convocatoria de las subvenciones concurrentes del Ayuntamiento de Lezo para el año 2025.

BASES GENERALES

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Lezo contempla en los presupuestos municipales para el ejercicio 2025 la concesión de subvenciones en las áreas de euskara, servicios sociales y deporte. A través de dichas ayudas se quiere colaborar en las múltiples actividades que asociaciones, entidades y personas individuales desarrollan en diferentes ámbitos y disciplinas consideradas de interés municipal.

A través de las subvenciones a conceder se pretende colaborar con dichas asociaciones y entidades en la intervención en diferentes ámbitos.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Lezo realiza, en el marco de sus recursos presupuestarios, convocatoria pública de libre concurrencia para subvenciones a proyectos en las áreas antes mencionadas.

La presente convocatoria reúne en un único documento el resto de líneas de subvención a conceder en régimen de concurrencia competitiva, con el fin de procurar a las asociaciones y entidades destinatarias de las ayudas económicas una única referencia normativa, al tiempo que se facilitan las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de los expedientes. Se contemplan, 9 programas en la parte de las bases especificas.

En la presente convocatoria se establecen:

1. Bases generales, de conformidad con lo establecido en la Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones (Boletín Oficial de Gipuzkoa 06-11-2018), en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 28-02-2024), en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006 que desarrolla su Reglamento, que fijan las disposiciones generales comunes a todas las convocatorias, procedimiento a seguir para la solicitud, beneficiarias, requisitos exigidos a las personas solicitantes, plazos de presentación, importe global destinado a estas ayudas, concesión, justificación del destino de la subvención, abono de las subvenciones, etc.

2. Las bases específicas son las que establecen los departamentos de euskera, servicios sociales y deporte en el ámbito de su competencia, donde se concretan las particularidades de cada programa de ayudas, entre otras, los criterios de asignación y reparto de la subvención y documentación adicional a presentar.

EK\CV GAO-I-2025-02226

I. XEDEA

*1. artikulua. Xedea.*

Oinarri hauek 2025 urterako norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute; horren kudeaketa Lezoko Udalari dagokio.

*2. artikulua. Onarpena eta argitalpena.*

Deialdi hau 2025-01-28ko Tokiko Gobernu Batzordean onartu da.

Oinarriak oso-osorik Lezoko Udalaren egoitza elektronikoan eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren webgunean argitaratuko dira. Deialdiaren laburpena berriz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, hau ere, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez bidalia.

*3. artikulua. Araubide juridikoa.*

Dirulaguntza hauek emateko eta udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie udalak onartutako dirulaguntza programa guztiei.

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Lezoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua eta gai honi aplikatu dakizkiokeen indarreko arauak.

*4. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina.*

Halaber, kontuan izango da 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena. Honen arabera, 3. artikuluan eta 17., 19.4. eta 23. artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak eta mandatuak betetzeko eskatuko zaie EAEko botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetza-hitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, EAEko botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, haien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian. Aipatu dekretuko 3. artikuluan honako printzipioak jasotzen dira, besteak beste:

— Tratu berdintasuna.

— Aukera berdintasuna.

— Ikuspegi intersekzionala txertatzea.

— Ekintza positiboa.

— Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea.

— Emakumeen ahalduntzea.

— Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea.

— Ordezkaritza orekatua.

Horrez gain, aipatu dekretuko 17. eta 23. artikuluetan, besteen artean, ondorengo mandatu hauek ere jasotzen dira:

— Azterlan, ikerketa, estatistika edo datu bilketetan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.

— Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea irudi eta hizkera mota guztietan. Lagungarri gisa Udaleko web orrian eskuragarri dagoen Hizkuntza barneratzaileari buruzko gida ikus daiteke (https://lezo.eus/eu/berdintasuna/hizkuntza-barneratzailea-bultzatzeko-gida).

I. OBJETO

*Artículo 1. Objeto.*

Estas bases regulan el procedimiento general para la concesión de subvenciones para el año 2025, cuya gestión corresponde al Ayuntamiento de Lezo.

*Artículo 2. Aprobación y publicación.*

Esta convocatoria ha sido aprobada en la Junta de Gobierno Local, celebrada en 28-01-2025.

Las bases se publicarán íntegramente en la sede electrónica del Ayuntamiento de Lezo y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones. Además se publicará un extracto de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa enviada a través a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

*Artículo 3. Normativa jurídica.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el Ayuntamiento y el/la beneficiario/a se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Salvo que las bases específicas establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en las presentes bases generales serán de aplicación a todos los programas de subvención aprobados por el Ayuntamiento.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Lezo, el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026, la Ley 38/2003, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006 y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

*Artículo 4. Texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres.*

Asimismo, se tendrá en cuenta el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. En su virtud, se exigirá el cumplimiento de los principios generales recogidos en el artículo 3 y en los artículos 17, 19.4 y 23 a las entidades privadas que suscriban contratos o convenios de colaboración con algún poder público vasco, sean participadas por éste o sean beneficiarias de ayudas o subvenciones concedidas por los poderes públicos vascos, en el tiempo y materia sobre la que verse su relación. En el artículo 3 del decreto mencionado se recoge lo siguiente:

— Igualdad de trato.

— Igualdad de oportunidades.

— Incorporar la perspectiva interseccional.

— Acción positiva.

— Eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

— Empoderamiento de las mujeres.

— Prevención, atención y erradicación de la violencia machista contra las mujeres.

— Representación equilibrada.

Además, en los artículos 17 y 23 del citado Decreto se recogen, entre otros, los siguientes mandatos:

— Incluir sistemáticamente la variable sexo en todos sus estudios, investigaciones, estadísticas o recogida de datos.

— Hacer un uso inclusivo y no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes. Como apoyo se puede ver la Guía sobre lenguaje inclusivo disponible en la página web del Ayuntamiento (https://lezo.eus/es/node/100488).

EK\CV GAO-I-2025-02226

— Dirulaguntzen onuradunek genero-ikuspegia txertatu behar dute euren jardunean eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak hartuko dituzte.

Lezoko Udalak ez die laguntzarik edo dirulaguntzarik emango sexuan oinarrituta edo diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerei, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere.

Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

*5. artikulua. Hizkuntz Betebeharrak.*

EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokion arlo guztietan, bai ahoz, bai idatziz ondorengo arauetan jasotzen dena beteko da:

1. EAEko Estatutuaren 6. artikulua.

2. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.

3. Otsailaren 22ko, 19/2024 Dekretuaren 13. artikulua, b) atala.

4. Lezoko Udalak 2018ko azaroaren 29ko osoko bilkuran onartutako VI. plangintzaldi (2018-2022) barruko hizkuntz irizpideak.

Hizkuntz Irizpideetan jasotzen den bezala, besteen artean ondorengo hauek bete beharrekoak direla gogoratu behar da:

— Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: Idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).

— Dirulaguntzaren xede den ekintz(et)an euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespeta daitezen.

— Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren eskuorriak, kartelak, iragarkiak, oharrak eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez euskaraz egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.

— Jardueraren hedapen lana eta jarduera bera euskaraz gauzatzen dituzten elkarteak diruz sarituko ditu Lezoko Udalak.

— Haur eta gazteentzat zuzendutako jarduerak antolatzeko dirulaguntza eskatzen denean, aipatu jarduerak euskaraz izan beharko dute. Jarduera horietan euskara ulertzen ez duen hartzailerik balego bideak jarriko zaizkio jardueraren baitan esandakoak uler ditzan.

— Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete ezean, ez da dirulaguntzarik emango.

*6. artikulua. Bestelako laguntzak.*

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak.

— Las personas beneficiarias de las subvenciones deberán incorporar la perspectiva de género en su actividad y adoptarán medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres.

El Ayuntamiento de Lezo no concederá ninguna ayuda o subvención a aquellas actividades que sean discriminatorias por razón de sexo o por incurrir en discriminación múltiple. Tampoco se subvencionarán a las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo, quedan excluidas de la concesión de ayudas y subvenciones las empresas con una plantilla superior a 50 personas que, estando obligadas a tener un plan de igualdad vigente conforme a la normativa estatal, carezcan de él y no acrediten la implantación de medidas para prevenir el acoso sexual o el acoso por razón de sexo.

*Artículo 5. Obligaciones lingüísticas.*

En todos los aspectos relativos al uso de las dos lenguas oficiales de la CAPV, tanto oralmente como por escrito, se cumplirá lo dispuesto en las siguientes normas:

1. Artículo 6 del Estatuto de Autonomia de la CAV.

2. Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera.

3. Artículo 13, apartado b) del Decreto 19/2024, de 22 de febrero.

4. Criterios lingüísticos dentro del VI Periodo de Planificación (2018-2022) aprobado por el Ayuntamiento de Lezo en sesión plenaria de 29 de noviembre de 2018.

Tal y como se recoge en los Criterios Lingüísticos, hay que recordar que, entre otros, son de obligado cumplimiento los siguientes:

— En la tramitación anterior y posterior de la subvención: Procurar mantener relaciones escritas y orales en euskera (teniendo en cuenta que la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconoce a la ciudadanía el derecho a presentar solicitudes en castellano ante la Administración).

— Garantizar el uso del euskera en las acciones objeto de subvención. En el caso de que se organizaran charlas públicas o similares y quien diera la charla no fuese euskaldun, tendría la ayuda de una persona vascohablante que permitiese el respeto a los derechos lingüísticos de quienes hablan euskera.

— Que los folletos, carteles, anuncios, notas etc., tanto orales como escritos, que se publiquen en las actividades subvencionadas, estén al menos en euskera, en cuyo caso se dará prioridad al euskera.

— El Ayuntamiento de Lezo premiará económicamente a las asociaciones que lleven a cabo la difusión de la actividad y la propia actividad en euskera.

— Cuando se solicite una subvención para la organización de actividades dirigidas a la infancia y la juventud, dichas actividades deberán ser realizadas en euskera. En el caso de que en dichas actividades hubiera quienes no entendieran euskera, se les facilitará la comprensión de las mismas.

— El incumplimiento de los criterios lingüísticos establecidos dará lugar a la no concesión de subvención.

*Artículo 6. Otras subvenciones.*

No se tomarán en consideración aquellas acciones que ya sean objeto de subvención por parte de otras convocatorias o partidas municipales.

EK\CV GAO-I-2025-02226

II. ONURADUNAK

*7. artikulua. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauen onuradunak honako hauek izan daitezke:

Lezon ekimenak egiten dituzten Lezoko pertsona fisiko zein juridikoak betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute.

Halaber, Lezokoak ez diren entitateek ere, eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Lezon ekimenen bat burutzen badute, Lezoko herritarrak artatzen badituzte edota udalarentzat interesgarriak direla iritzitako jarduerak baldin badira.

Era berean, ezin izango dute onuradun baldintzarik eskuratu beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko beste edozein diskriminaziorik sustatzen duten elkarteak.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

a. Udalarekin zorretan ez egotea.

b. Pertsona fisikoen kasuan Lezon erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzean, eta hala egon izana gutxienez azken urtean edo bi urte metatuak izateak azken 15 urtetan.

c. Zerga-betebeharretan egunean egotea.

d. Gizarte-Segurantzarekin zorretan ez egotea.

e. Izaera juridikoa duten elkarteek dagokien elkarte erregistroan inskribatuak egon beharko dute.

f. Lezoko udalerrian beren egoitza ez duten elkarteen kasuan izena emanda egotea dagokien Elkarte Erregistroan.

g. Deialdi bakoitzerako eranskinean jasotako oinarri espezifikoetan jasotako baldintzak.

III. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA DOKUMENTAZIOA

*8. artikulua. Lekua eta dokumentazioa.*

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki (eskaera entitate juridikoaren lehendakariak edo jabe ez den beste pertsona batek egiten badu, sinatutako ordezkaritza agiria aurkeztu beharko du, aurrez aurkeztua ez badu):

— Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Gurutze Santuaren plaza, 1).

— Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoetako dirulaguntzak atalean (www.lezo.eus).

— Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Lezoko Udalak, Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez edo informazio hori lortzeko gaitutako beste bitarteko baten bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez di-

II. BENEFICIARIAS

*Artículo 7. Beneficiarias.*

Las personas o entidades beneficiarias de estas subvenciones podrán ser:

Personas jurídicas o físicas y organismos públicos o privados que realicen sus actividades en el ámbito de Lezo, siempre que su objetivo sea llevar a cabo, mediante dichas subvenciones, alguna actividad de uso público o de interés social o que trabajen en pos de algún objetivo público.

Asimismo, también podrán optar por la subvención las entidades que no pertenezcan a Lezo pero que realicen actividades en esta localidad o planteen actividades consideradas de interés para el municipio de Lezo.

Tampoco podrán acceder a las condiciones de beneficiarias las asociaciones que promuevan con su actividad cualquier otra discriminación de carácter social o personal.

Requisitos de los y las solicitantes:

a. No tener deudas con el Ayuntamiento.

b. En el caso de las personas físicas estar empadronadas en Lezo en el momento de solicitar la ayuda y haberlo estado al menos durante el último año o haber acumulado dos años en los últimos 15 años.

c. Estar al corriente de las obligaciones tributarias.

d. No hallarse en situación deudora con la Seguridad Social.

e. Las asociaciones de naturaleza jurídica deberán estar inscritas en el registro de asociaciones correspondiente.

f. Las asociaciones que no tengan su domicilio social en el municipio de Lezo deben estar inscritas en el Registro de Asociaciones.

g. Los requisitos recogidos en las bases específicas para cada convocatoria.

III. LUGAR PARA LA PRESENTACIÓN DE INSTANCIAS Y DOCUMENTACIÓN

*Artículo 8. Lugar y documentación.*

Las solicitudes podrán presentarse de forma presencial o telemática por personas físicas, y sólo telemática por personas jurídicas (si la solicitud la realiza una persona distinta del presidente o presidenta de la entidad jurídica o de la propietaria, deberá aportar documento de representación firmado en caso de no haberlo presentado previamente):

— De forma presencial, en el Registro General del Ayuntamiento (Gurutze Santuaren plaza, 1).

— De forma telemática, en el apartado subvenciones de los servicios telemáticos del ayuntamiento (www.lezo.eus).

— Asimismo, podrán presentarse en los lugares a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El Ayuntamiento de Lezo mediante el Nodo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales,

EK\CV GAO-I-2025-02226

tuen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Lezoko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

— Eskatzailearen edo ordezkariaren nortasun agiria edo agiri baliokidea.

— Foru Ogasunarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

— Gizarte Segurantzarekin zorretan ez dagoenaren ziurtagiria.

Hala ere, egiaztatze honi uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Lezoko Udalak, ofizioz, egiaztatuko ditu ondorengoak:

— Lezoko Udalarekin egunean egotearen ziurtagiria.

— Eskaera-orrian adierazitako kontu korrontea pertsona juridikoarena dela ziurtatzea.

— Entitateen dagokion Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztagiria.

— Entitatearen estatutuak.

— Entitatearen zuzendaritza osaketaren egiaztagiria.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— Dirulaguntza eskaera-orri normalizatua. Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean jasotzen dena.

— Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) (Eskaera pertsona juridiko batek egin badu).

— Eskaera orrian eskatzaileak derrigorrez bere kontu korronte zenbakia adieraziko du. Kontu horretan egingo da dirulaguntzaren ordainketa.

— Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean adierazten den dokumentazio gehigarria.

— Zinpeko aitorpena eskaria orrian, aurkeztutako datu guztiak benetakoak direla ziurtatzen duena.

— Zinpeko aitorpena eskaria orrian DLLOko 25. eta 26. artikuluetan ezarritako baldintzen arabera, dirulaguntzen itzuleragatiko zorduna ez izatea ziurtatzen duena (ED 887/2006 –*Estatuko Aldizkari Ofiziala* 176 uztailaren 25ekoa–).

— Zinpeko aitorpena eskaria orrian 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena, jasotakoaren kontrako jarduerak antolatu ez, jarrerak izan ez edo kontrako epai ez izatea ziurtatzen duena.

Eskatzaile fisiko edo juridiko batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Lezoko udalaren esku daudela eta udalak berak ere hori hala dela badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Dirulaguntza banatzeko oinarriak Lezoko web gunean (https://www.lezo.eus) eskuratu ahal izango dira.

datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Lezo va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

— DNI o documento equivalente de la persona solicitante o responsable de la entidad.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

No obstante, se podrá renunciar a esta acreditación. En este caso, quien solicita la subvención deberá aportar la documentación mencionada en la lista.

El Ayuntamiento de Lezo verificará, de oficio, los siguientes:

— El certificado de estar al corriente de pago con el Ayuntamiento de Lezo.

— La acreditación de que la cuenta corriente indicada en el impreso de solicitud es de la persona jurídica.

— Certificado de inscripción en el Registro correspondiente de Asociaciones.

— Estatutos de la entidad solicitante.

— Certificado de la composición de la junta de la entidad.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Para realizar la solicitud de subvención, deberá presentarse la siguiente documentación:

— Instancia de solicitud oficial normalizada (la que se recoja en cada anexo según la convocatoria de subvención).

— Número de Identificación Fiscal (si la solicitud es de una persona jurídica).

— La persona fisica o jurídica solicitante indicará obligatoriamente su cuenta corriente en la solicitud. El pago de la subvención se realizará en dicha cuenta.

— Documentación adicional que se indica en cada anexo según la convocatoria de subvención.

— Declaración jurada en la hoja de solicitud de que todos los datos presentados son ciertos.

— Declaración jurada de no estar en deuda por reintegro de subvenciones en los términos establecidos en el artículo 25 y 26 de la LGS en la hoja de solicitud (RD 887/2006, *Boletín Oficial del Estado* de 25 de julio).

— Declaración jurada en la que se acredite que no se han organizado, mantenido o fallado actuaciones contrarias a lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres.

Cuando una persona solicitante, física o jurídica, manifieste que parte de la documentación exigida en estas bases obra en poder del Ayuntamiento de Lezo y así lo conozca la institucion, no habrá que aportar dicha documentación.

Las bases de la subvención estarán disponibles en la página web de Lezo (https://www.lezo.eus).

IV. EPEAK

*9. artikulua. Eskaera aurkezteko epea.*

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

*10. artikulua. Dokumentazio osagarria.*

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, jakinarazi eta hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaren arabera, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

V. PROZEDURA

*11. artikulua. Ebazteko prozedura.*

Honakoa izango da ebazteko prozedura:

a) Dagokion arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egingo du.

b) Jarraian, Tokiko Gobernu Batzordearen akordio edo alkate dekretu bidez onartuko da.

c) Azkenik, Tokiko Gobernu Batzorde akordio edo alkate dekretu bidez emango da dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena.

*12. artikulua. Ebazteko epea.*

Eskaerak erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da, gerora egin daitekeen ekarpenaren kaltetan izan gabe.

*13. artikulua. Zenbatekoak.*

Erakunde, elkarte edo norbanako bakoitzari zenbateko dirulaguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontuan hartuko da:

— Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurreikusitako zenbatekoa.

— Aurkeztutako ekintzen edo eskaeren kopurua eta nolakotasuna.

Bestalde, udalak ekintza baterako gastutzat onartutako kopurua baino gastu txikiagoa egiten bada edo ekintza egiten ez bada, dirua itzuli egin beharko da.

*14. artikulua. Ordainketak.*

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen dira dirulaguntza hauen ordainketa moduak.

*15. artikulua. Bateragarritasuna.*

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketa egongo dirulaguntza publikoekin, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzuli behar izanez gero, pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Lezoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

IV. PLAZOS

*Artículo 9. Para presentar solicitudes.*

Serán las que figuran en las bases específicas de cada programa de subvención, a su vez recogidas en el anexo.

*Artículo 10. Documentación complementaria.*

Si la documentación presentada es incompleta o si no cumpliese con alguna de las condiciones estipuladas en las bases, la persona interesada dispondrá de un plazo de diez días hábiles para subsanar los errores o para incorporar la documentación correspondiente. Y se le indicará que, en base a los términos previstos en el art. 68.1 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si así no lo hiciera, se tendrá por desistida su petición.

V. PROCEDIMIENTO

*Artículo 11. Procedimiento de resolución.*

El proceso de resolución será el siguiente:

a) El personal técnico del área evaluará las solicitudes de subvención y se encargará de realizar un informe.

b) A continuación, la propuesta se aprobará mediante la Junta de Gobierno Local o Decreto de Alcadía.

c) Finalmente, la resolución definitiva de las subvenciones se realizará mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local o Decreto de Alcaldía.

*Artículo 12. Plazo de resolución.*

El plazo máximo para que se dicte la resolución y su notificación será de tres meses a partir de la fecha en que se termina el plazo para la presentación de las solicitudes. Si transcurrido dicho plazo no se hubiese producido ninguna resolución, debe entenderse que la solicitud ha sido rechazada, sin perjuicio de la resolución que pudiera sobrevenirse.

*Artículo 13. Cuantías.*

Las subvenciones que se conceden a las entidades, asociaciones o personas físicas se establecerán en base a los siguientes criterios:

— Cantidad prevista para ese fin en el presupuesto municipal.

— Cantidad y características de las actividades presentadas.

Por otra parte, si el gasto real es inferior al presupuesto aceptado como gasto o si no se realiza la actividad, deberá de devolverse la diferencia.

*Artículo 14. Pagos.*

Las modalidades de pago de estas subvenciones se recogen en las bases específicas de cada programa que figuran como anexo a las presentes bases.

*Artículo 15. Compatibilidad.*

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobre-financiación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobre-financiación y concurriese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Lezo.

EK\CV GAO-I-2025-02226

VI. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

*16. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.*

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau orokor eta espezifikoetan jasotakoez gain, hauek ere entitate onuradunaren betebeharrak dira:

a) Diruz lagundutako jarduera egitea edota helburuak betetzea.

b) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea eta horietan ezarritakoa betetzea.

c) Lezoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.

d) Eskaera-orrian adierazi ez den beste administrazio edo erakunde publikoei (estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako eskatutako edo erakundeetatik jasotako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, Lezoko udalari horren berri ematea.

e) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eman duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespena izatea.

f) Ekintzei lotutako publizitatean Lezoko Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.

g) Dirulaguntza jaso izanagatik jarduera edo zeregina bertan behera edo eskabidean adierazitakotik nabarmen aldatuko balitz, onuradunak jasotako diru kopurua itzultzeko betebeharra izango du.

h) Oinarri hauetan jasotako beste edozein betebehar.

i) Dirulaguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Lezoko Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloetan jasotakoak beteko dira.

j) Lezoko Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako euskarriei (paperezkoak zein digitalak) herri intereseko erabilera eman ahal izango zaie.

Udalak edozein momentutan eskatu diezaieke entitate onuradunei betebehar hauek betetzen dituztela kreditatu dezaten.

*17. artikulua. Ez betetzea.*

Oinarri-arau hauetan xedaturiko baldintzak betetzen ez badira dirulaguntzaren berrikusketa egingo da, eta hala dagokionean, deuseztatu, gutxiagotu edota itzularazi azaroaren 17ko 38/2003 dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. eta 52. artikuluek eta ondorengoek aurreikusten duten eran.

VII. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

*18. artikulua. Balorazio irizpideak.*

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

VIII. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

*19. artikulua. Justifikazioa.*

Dirulaguntzak justifikatzeko pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Egindako jarduerararen memoria; bertan diruz lagundutako jarduerak emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan duen jakiteko, sexuaren arabera banakatuta aurkeztuko

VI. OBLIGACIONES DE LAS BENEFICIARIAS

*Artículo 16. Obligaciones de las beneficiarias.*

En caso de concesión de subvención, además de las recogidas en las bases específicas, son obligaciones de la entidad beneficiaria las siguientes:

a) Realizar la actividad o cumplir el objetivo.

b) Obtener todos los permisos para el cumplimiento de la actividad objeto de subvención, y cumplir lo establecido en los mismos.

c) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Lezo y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuidas dicha competencia.

d) Comunicar al Ayuntamiento de Lezo la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad, procedentes de otras Administraciones o entes públicos, nacionales o internacionales, diferentes a las señaladas en el impreso de solicitud.

e) Comunicar al órgano concedente y tener su aprobación, sobre la modificación de cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que se hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención,

f) En la publicidad asociada a las acciones se deberá indicar el Ayuntamiento de Lezo como patrocinador, adjuntando logo municipal.

g) Si como consecuencia de la percepción de la subvención la actividad o tarea dejase de ser suspendida o variase sustancialmente del contenido de la solicitud, el beneficiario estará obligado a reintegrar la cuantía concedida y percibida.

h) Cualquier otra obligación contenida en estas bases.

i) Las actuaciones objeto de subvención se ejecutarán de acuerdo con lo establecido en las Ordenanzas Municipales de Recogida y Tratamiento de Residuos Urbanos del Ayuntamiento de Lezo y en los protocolos definidos por éste.

j) Los soportes, tanto impresos como digitales, generados en los proyectos subvencionados por el Ayuntamiento de Lezo podrán ser destinados a usos de interés público.

El Ayuntamiento podrá solicitar en cualquier momento a las entidades beneficiarias que acrediten el cumplimiento de estas obligaciones.

*Artículo 17. Incumplimiento.*

El incumplimiento de las condiciones establecidas en las presentes bases dará lugar a la revisión de la subvención y proceder, en su caso, a la anulación, reducción o reintegro en los términos previstos en los artículos 37, 52 y siguientes de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre.

VII. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

*Artículo 18. Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración se recogen en las bases específicas de cada programa en el anexo de estas bases generales.

VIII. JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 19. Justificación.*

Para la justificación de las subvenciones la persona física o jurídica beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación:

a) Memoria de la actividad realizada; en la misma, para conocer el impacto de la actividad subvencionada en la situación de mujeres y hombres, se presentarán datos cuantitativos

EK\CV GAO-I-2025-02226

dira persona guztiei (jasotzaile edo partehartzaileak, langileak, antolatzaileak eta elkarteko zuzendaritzakideak) buruzko kopuru datuak.

b) Diruz lagundutako jardueraren sarrera gastuen balantze zehaztua.

c) Diruz lagundutako jardueraren gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko egiaztagiri eta fakturak. Diruz lagundutako jarduerarekin eta datarekin bat egin beharko dute. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan hauxe agertuko da:

— Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.

— Hornitzailearen identifikazioa.

— Fakturaren data.

— Kontzeptua.

d) Udalak dirulaguntza ekintza jakin baterako izendatzen badu, eta urtean zehar hasierako asmoak beste ekintza batekin ordezkatu nahi badira, udalari asmoaren berri eman behar zaio eta honen oniritzia jaso.

e) Dokumentazio grafikoa edota ikus-entzunezkoa, balego.

f) Oinarri espezifikoetan jasotako beste edozein egiaztagiri.

IX. INTERPRETAZIOA

Oinarri-arau hauen interpretazioan edota garapenean sor daitezken zalantzak erabakia hartzen duen organoak argituko ditu.

X. ARAUDI OSAGARRIA

*20. artikulua. Araudi osagarria.*

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Lezoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena, Lezoko Udalaren Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoak jasotakoa eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen eta garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren xedapenak.

Halaber, araudi horietan aintzat hartu ez diren kontuetarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Lezoko Udalaren III. Berdintasun Plana.

Indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lezoko VI. Plangintzaldia.

Baita ere, aplikagarri da Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352/1).

OINARRI ESPEZIFIKOAK

*1. artikulua. Lezoko kirol entitateen ohiko lehiaketara bideratutako kirol jarduera garatzeko dirulaguntzak arautzen duten oinarri arau espezifikoak.*

Lezoko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten kirol klub eta elkarteei zuzenduriko partidak biltzen ditu.

desagregados por sexo de todas las personas destinatarias o participantes (personal, organizadores/as y directivos/as de la asociación).

b) Balance detallado de gastos e ingresos de la actividad subvencionada.

c) Justificantes y facturas que justifiquen íntegramente los gastos de la actividad subvencionada. Deberán coincidir con la fecha y la actividad subvencionada. No se admitirán justificantes de gastos realizados para otros fines.

En las facturas figurará:

— Identificación de la entidad.

— Identificación del/la proveedor/a.

— Fecha de la factura.

— Concepto.

d) En el caso de que el Ayuntamiento conceda la subvención para una acción concreta, y a lo largo del año se pretenda sustituir las pretensiones iniciales por otra nueva, deberá comunicarse la intención al Ayuntamiento y contar con su visto bueno.

e) Documentación gráfica y/o audiovisual, si la hubiere.

f) Cualquier otra acreditación contenida en las bases específicas.

IX. INTERPRETACIÓN

Las dudas que puedan surgir en la interpretación y/o desarrollo de estas bases serán resueltas por el órgano regulador.

X. NORMATIVA COMPLEMENTARIA

*Artículo 20. Normativa complementaria.*

En lo no dispuesto en esta convocatoria se tendrá en cuenta la regulación contenida en la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Lezo, el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de Lezo, a lo dispuesto en la Ley 38/2003 reguladora de Subvenciones de la Administración Pública y a lo recogido en las disposiciones del Real Decreto 887/2006 que lo desarrolla.

Asimismo, en lo no previsto en dicha normativa será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y la lucha contra la violencia machista contra las mujeres; Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres; y III Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Lezo. Plan de Igualdad.

Sexto periodo de planificación para la normalización del uso del euskera en vigor en el Ayuntamiento Lezo.

También es de aplicación el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 de la Comisión Europea, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de mínimis (DOUE L n.º 352/1, de 24 de diciembre de 2013).

BASES ESPECIFÍICAS

*Artículo 1. Normativa específica reguladora de las subvenciones destinadas al desarrollo de la actividad deportiva dirigida a la actividad de competición ordinaria de las entidades deportivas de Lezo.*

El presupuesto del Ayuntamiento de Lezo incluye partidas destinadas a clubes y asociaciones deportivas sin ánimo de lucro.

EK\CV GAO-I-2025-02226

Kirol eremuan lan egiten duten entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, eta aurrekontuan bildutako ekintzen publizitatea bermatzeko, ondoko oinarriak finkatzen dira:

a. Xedea.

Lezoko, edo eskualdeko izaera eta Lezoko herritarrei zerbitzua eskaintzen dien, irabazi asmorik gabeko kirol entitateek 2025-2026 denboraldian federazioen antolaketari (liga eta txapelketetan parte-hartzea) dagokion kirol jarduera garatzera zuzenduriko dirulaguntzak arautzea eta ematea dute helburu oinarri-arau hauek.

b. Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri-arau hauek arautzen dituzten dirulaguntzak eskatu ahal izateko, kirol entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte (2025/2026 denboraldiari (2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra) edo 2025 urteari dagozkionak):

Oinarri orokorretan jasotakoaz gain irabazi asmorik gabeko kirol entitate juridiko pribatuak izatea eta Gipuzkoan Eskola Kirolari buruz indarrean dagoen arautegia betetzea.

Deialdi honetan ez dira onuradun izango mendizaletasuna, ehiza, skate-scooter, herri kirolak eta txirrindularitza modalitateak. Modalitatearen barne estruktura eta praktika motaren ezaugarriak kontuan hartuta, antolatutako ekintzen arabera jasoko dituzte dirulaguntzak eta dirulaguntza lerro honetan ez dute parte hartzerik izango.

Eskualdeko izaerako klubak izanik, Oarsoaldeako kirol koordinazio mahaian hartutako akordioen ondorio, trataera berezia izango duten klubek beste dirulaguntza lerro berezia izango dute eta dirulaguntza lerro honetan ez dute parte hartzerik izango. Oarsoaldeako kirol koordinazio mahaian hartutako akordioen baitan eskualdeko klub izaera eman zaien klubek dirulaguntza lerro izendunak izango dituzte.

c. Eskabideak.

Oinarri orokorreko 8. artikuluan jasotakoaz gain, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a.— Araudi honek arautzen duen kirol jarduerari dagokion denboraldiko egitasmo memoria eta gastu eta sarreren aurrekontua.

b.— Lizentzia indarrean duten kirolarien (jokalari, entrenatzaile, eta epaile) kopurua eta izen-zerrenda (sexuka bereizita), dagokion federazioak edo Foru Aldundiak emanda, kasuak kasu; bertan azaldu beharko da non erroldatuak dauden.

c.— Zerrenda bat egingo da ere, non zehazten den teknikari eta epaile bakoitzaren kirol formazioa eta erabiliko duen hizkuntza bere lanean (saio eta partida edo txapelketak).

d.— Lezoko Udalarekin taldeak egindako kolaborazioen zerrenda kirol ekintzak sustatzen edo instalazioak kudeatzen (aurreko ikasturtekoa).

e.— Herritar guztiei zuzenduriko sustapeneko kirol-ekintzen antolaketa (aurreko ikasturtean egin den ekintza bakoitzaren dokumentazioa erantsirik).

f.— Entitateak barne mailan edo bere inguruan euskararen erabilera normalizatzeko (edo elkartea euskalduntzeko) ekimena aurreikusten badu, ekimen horri dagokion dokumentazioa.

g.— Berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta partaidetza, indarkeriarik eza eta indarkeria matxista prebenitzeko jarduerak, aurreikusten badira, antolatzeari buruzko dokumentazioa.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzerakoan modalitate batek bere denboraldia hasia ez badu, dokumentazio guztia aurreko ikasturteari dagokiona izango da (urte naturaleko jardueretan, 2025ekoa).

Al objeto de posibilitar el acceso a las subvenciones a las entidades que desarrollan su actividad en el ámbito deportivo, y garantizar la publicidad de las acciones presupuestadas, se establecen las siguientes bases:

a. Objeto.

Las presentes bases tienen por objeto regular y conceder subvenciones destinadas al desarrollo de la actividad deportiva correspondiente a la organización federativa (participación en ligas y competiciones) durante la temporada 2025-2026 por parte de entidades deportivas sin ánimo de lucro, que tengan el carácter de Lezo o comarca y que den servicio a la ciudadanía de Lezo.

b. Personas beneficiarios y requisitos a cumplir.

Para poder solicitar las subvenciones reguladas en las presentes bases, las entidades deportivas deberán cumplir los siguientes requisitos (referidos a la temporada 2025/2026 (1 de septiembre de 2025 a 31 de agosto de 2026) o al año 2025):

Además de lo previsto en las bases generales, ser entidades jurídicas deportivas privadas sin ánimo de lucro y cumplir la normativa vigente en Gipuzkoa sobre Deporte Escolar.

No serán entidades beneficiarias de esta convocatoria aquellas que desarrollen las modalidades de montañismo, caza, herri Kirolak, skate-scooter y cicloturismo, en razón a la estructura interna de la modalidad y las características del tipo de práctica, recibirán subvenciones en función de las actividades organizadas y no podrán participar en esta línea de subvenciones.

Tampoco lo serán clubes de carácter comarcal que tengan un tratamiento específico derivado de los acuerdos adoptados en la mesa de coordinación de deporte de Oarsoaldea y tengan otra línea subvencional específica. Los clubes a los que se les haya otorgado la condición de clubes de la comarca en el marco de los acuerdos adoptados en la mesa de coordinación de deporte de Oarsoaldea tendrán líneas de subvención nominativas.

c. Solicitudes.

Además de lo recogido en el artículo 8 de la base general, se deberá presentar la siguiente documentación:

a.— Memoria y presupuesto de gastos e ingresos de la temporada correspondiente a la actividad deportiva regulada en la presente normativa.

b.— Número y relación nominal (desagregada por sexo) de los/as deportistas con licencia en vigor (jugadores/as, entrenadores/as, juezas y jueces), facilitada por la federación correspondiente o por la Diputación Foral, según los casos, con indicación del lugar de empadronamiento.

c.— Listado en el que se especificará la formación deportiva de cada técnico/a y árbitro/a y el idioma que utilizará en su trabajo (sesiones y partidos o campeonatos).

d.— Relación de colaboraciones realizadas por el equipo con el Ayuntamiento de Lezo en la promoción de actividades deportivas o en la gestión de instalaciones (curso anterior).

e.— Organización de actividades deportivas de promoción dirigidas a toda la ciudadanía (adjuntando documentación de cada una de las actividades realizadas en el curso anterior).

f.— Documentación correspondiente a acciones previstas, si es el caso, por la entidad para la normalización del uso del euskera a nivel interno (o para euskaldunizar la asociación) o en su entorno.

g.— Documentación relativa a la organización, si es el caso, de actividades para promocionar la igualdad, el empoderamiento de las mujeres y su participación, la no violencia y prevenir la violencia machista.

Si al finalizar el plazo de presentación de solicitudes una modalidad no hubiera iniciado su temporada, toda la documentación será la correspondiente al curso anterior (en el caso de actividades de año natural, la referida a 2025).

EK\CV GAO-I-2025-02226

Entitateari buruzko dokumentazioa eta programa ez badira aurkezten, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da; beste dokumentazioaren kasuan, bakarrik baloratuko dira aurkeztuak izan diren atalak.

d. Epeak.

Eranskin honetako dirulaguntza eskaera egiteko epea, urriaren 6ean hasita (barne) 12 egun naturalekoa izango da.

e. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntza ematea onartu ondoren, ordainketa era honetan gauzatuko da:

— Dirulaguntzaren % 70a gastuen konturako aurrerakin moduan, hura onartzen denean.

— Gainerako % 30a, eskatutako dokumentazioa Lezoko udaletxean aurkeztu ondoren.

Salbuespen gisa eta egoerak horrela eskatzen duenean, bigarren zatiaren portzentaje bat aurreratzerik egongo da. Aurrerapen eskaera, kiroletako sailari luzatuko zaio behar bezalako txosten baten bitartez arrazoituz. Eskaera aztertu ondoren, bidezkoa ikusten bada, organo ebatzaileari proposamena egingo zaio.

Dirulaguntza justifikatzeko eta bigarren ekarpena jaso ahal izateko, onuradunak oinarri orokorretako 20. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

Dokumentazio hau aurkezteko epea 2026eko urriaren 9an amaituko da.

Bereziki bultzatu nahi diren arlo hauetatik eratortzen dira baloratzeko irizpideak:

— Herri partaidetza duen kirola.

— Euskal Herriko kirolak.

— Euskararen erabilera normalizatua egiten duen kirola.

— Herritarren gozamenerako ikuskizuna eskaintzen duen jarduera.

— Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola.

— Eskola kiroleko estrukturarekin sinergiak.

— Adin talde guztien parte hartzea.

— Kirol modalitateen aniztasuna.

— Berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea, oldarkeriarik eza eta indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzen duen kirola.

Horren ondorio, kirol entitateen ohiko jarduera laguntzera zuzenduta dagoen diru kopurua ondoko kontzeptu hauen artean eta baremoen arabera banatuko da:

1. Kirol lizentzien kopurua eta emakumeen parte-hartzea.

2. Udalarekin lankidetza kirolaren sustapenean.

3. Kirol titulazioak.

4. Herritar guztiei zuzenduriko ekintzak antolatzeagatik.

5. Euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak.

6. Berdintasuna, emakumeen ahalduntzea, kirolean indarkeriarik eza eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko ekintzak.

7. Ezohiko ekitaldietara joateko.

8. Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola.

La no presentación de la documentación relativa a la entidad y del programa dará lugar a la denegación de la solicitud de subvención. En el caso del resto de la documentación, se valorarán solo los apartados presentados.

d. Plazos.

12 días naturales a partir del día 6 de octubre (incluido).

e. Cuantía y pago de la subvención.

Una vez aceptada la concesión de la subvención, el pago se realizará de la siguiente forma:

— El 70 % de la subvención en concepto de anticipo a cuenta de gastos, en el momento de su aprobación.

— 30 % restante tras la presentación de la documentación solicitada en el Ayuntamiento de Lezo.

Excepcionalmente y cuando la situación lo requiera, se podrá adelantar un porcentaje de la segunda parte. La solicitud de anticipo se elevará al área de deportes, motivándose mediante informe. Analizada la solicitud, si se estima procedente, se elevará propuesta al órgano resolutor.

Para la justificación de la subvención y para la percepción de la segunda aportación, la persona o entidad beneficiaria deberá presentar la documentación recogida en el artículo 20 de las bases generales:

El plazo de presentación de esta documentación finaliza el 9 de octubre de 2026.

Los criterios de valoración derivan de los siguientes ámbitos que se pretenden fomentar especialmente:

— Deporte participativo.

— Deportes de Euskal Herria.

— Deporte que hace un uso normalizado del euskera.

— Una actividad que ofrece un espectáculo para el disfrute de la ciudadanía.

— Deporte que ayuda a estrechar lazos con deportistas de Navarra, Zuberoa y Lapurdi.

— Sinergias con la estructura del deporte escolar.

— Participación de todos los grupos de edad.

— Diversidad de modalidades deportivas.

— Deporte que fomente la igualdad y el empoderamiento y la participación de las mujeres, la no agresividad y la prevención de la violencia machista.

Como consecuencia de ello, la cantidad destinada a apoyar la actividad ordinaria de las entidades deportivas se distribuirá de acuerdo con los siguientes conceptos y baremos:

1. Número de licencias laborales y participación de las mujeres.

2. Colaboración con el Ayuntamiento en la promoción del deporte.

3. Titulaciones deportivas.

4. Por organizar acciones dirigidas a toda la ciudadanía.

5. Iniciativas de normalización del uso del euskera.

6. Acciones para promover la igualdad, el empoderamiento de las mujeres, la no violencia en el deporte y la prevención de la violencia machista.

7. Asistencia a eventos extraordinarios.

8. Deporte que ayuda a estrechar las relaciones con los deportistas de Navarra, Zuberoa y Lapurdi.

EK\CV GAO-I-2025-02226

| *Irizpidea* | | *Puntuak* |
|---|---|---|
| Kirol lizentzia federatuen kopurua, edo eskola kiroleko lizentziak partaidetzako kirolarien kasuan, sexuka bereizita | Gizonezkoen lizentzia bakoitzeko | 0,5 |
| | Emakumezkoen lizentzia bakoitzeko | 1,0 |
| | Lezoko gizonen lizentzia bakoitzeko | 1,0 |
| | Lezoko emakumeen lizentzia bakoitzeko | 2,0 |
| | Gizonak: pilota eta herri kirolak lizentzia bakoitzeko | 2,0 |
| | Emakumezkoak: pilota eta herri kirolak lizentzia bakoitzeko | 4,0 |
| | Infantil eta kadete mailetako ikastetxeetako partaidetzako lizentziak, klubeko lizentziatzat hartuko dira, klubak ikastetxearekin harremana badu, eskola kiroleko arautegia betetzen badu eta lezoko eskola kiroleko batzordeak horrela ziurtatzen badu | |
| | Alebin mailako kirolarien kasuan, entitateak garatzen duen modalitatea eskola kiroleko jarduera arruntean ez bada lantzen eta kirolari horiek Lezoko eskola kiroleko estrukturaren programan parte hartzen badute, klubeko lizentziatzat hartuko dira | |
| Kirol Titulazioa | III mailako entrenatzaile titulua edo baliokidea duen JFK zientzietako graduduna | 10,0 |
| | III mailako entrenatzailea edo JFK zientzietan graduatuduna | 8,0 |
| | II mailako entrenatzailea. Lehen Hezkuntza Gradua (GH espezialista) | 4,0 |
| | I mailako entrenatzailea edo TAFyD | 2,0 |
| | Arbitroak | 2,0 |
| | Emakumezkoen kasuan puntuazioa bikoiztuko da | |
| Herritar guztiei zuzenduriko ekintzak antolatzeagatik | Ekintzak aztertu ondoren 5 puntu arte banatzerik egongo da ekintza bakoitzarengatik | 1,0-5,0 |
| Udalarekin lankidetza kirolaren sustapenean | Ekintza puntual bakoitzeko | 1,0 |
| | Izaera jarraiko lankidetzagatik | 6,0 |
| | (Udalak bere kirol egitasmoa aurrera eramateko kirol taldeen beharra izaten du batzuetan; lankidetza udalak honelako batean laguntzekoeskatzen duenean izaten da) | |
| Ezohiko ekitaldietara joateko | Gipuzkoako Lurralde historikotik kanpo ospatzen diren egutegi ofizialeko ezohiko lehiaketetara joateagatik edo kirol modalitateetako egutegi ofizialeko lehiaketa arruntetara joateagatik kirol modalitate honek praktikarako beste lurraldetasun maila edo eremu bereziak eskatzen baditu<br>3 dirulaguntza egongo dira gehienez; gutxienez 150 euro eta gehienez 450 eurotakoak beti aurrekontuaren %50a gehienez ordainduko delarik. Aurkeztutako eskaeren artean hiru aukeratuko dira. Irizpide nagusia ez bada (LLHH kanpo desplazamenduak) eman, dirulaguntza banatuko da baina, garraioa ordaintzera zuzenduko da beti | Ekimen bakoitzari diru kopuru finkoa aurrekontua agortu arte |
| Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola | Bi dirulaguntza emango dira gehienez udal teknikariaren txostenaren arabera | Diru kopuru finkoa |
| Euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak | Bere jarduera euskaraz garatzen duen teknikari bakoitzeko | 1,0 |
| | Konpromiso hau ikuskatuko da. Ez bada betetzen jasotzailea ohartuko da; bigarren aldi batean huts egiteak 15 atalean jasotakoa aplikatzea suposatuko du | |
| | Euskararen erabilera sustatzeko edo elkartea euskalduntzeko ekimena | 700,00 € |
| | Elkarteek aurkeztutako ekimenen artean bat aukeratuko da eta egitasmoa burutu eta aurkeztu ondoren dirulaguntza jasoko du onuradunak. Aurkeztutako ekimenak ez badira egokiak ikusten dirulaguntza ez da emango | |
| Berdintasuna sustatzeko ekimenak | Berdintasuna sustatzeko ekimenak | 700,00 € |
| | Elkarteek aurkeztutako ekimenen artean bat aukeratuko da eta egitasmoa burutu eta aurkeztu ondoren dirulaguntza jasoko du onuradunak. Aurkeztutako ekimenak ez badira egokiak ikusten dirulaguntza ez da emango | |

| *Criterio* | | *Puntos* |
|---|---|---|
| N.º de licencias deportivas federadas o escolares en el caso de equipos en línea de participación, desagregadas por sexo | Licencia de hombre | 0,5 |
| | Licencia de mujer | 1,0 |
| | Licencia de hombre residente en Lezo | 1,0 |
| | Licencia de mujer residente en Lezo | 2,0 |
| | Hombres: licencia de euskal pilota y herri kirolak | 2,0 |
| | Mujeres: licencia de euskal pilota y herri kirolak | 4,0 |
| | Las licencias deportivas de centros escolares de las categorías cadete e infantil de participación se considerarán licencias de club, si el club tuviera relación con el centro para esa modalidad, respetase la normativa de deporte escolar y así lo certificase la comisión de deporte escolar de Lezo | |
| | En el caso de las licencias de categoría alevín, en el caso de modalidades que no se trabajen en el programa de deporte escolar y en el caso de deportistas que participen en el programa de la estructura de deporte escolar de Lezo, se considerarán licencias de club | |
| Titulación deportiva | Grado en ciencias de AFD, con título de entrenador/a nivel III o equivalente | 10,0 |
| | Entrenador/a de nivel III o grado en ciencias de la AFD | 8,0 |
| | Entrenador/a de nivel II. Grado en Educación Primaria (especialista EF) | 4,0 |
| | Entrenador/a de nivel I (monitor)/TAFyD o equiparable | 2,0 |
| | Arbitroak | 2,0 |
| | En el caso de mujeres se dobla la puntuación | |
| Por organizar actividades dirigidas a toda la ciudadanía | Después de examinar las actividades, se podrán repartir hasta 5 puntos por cada actividad | 1,0-5,0 |
| Cooperación con el Ayuntamiento en la promoción del deporte | Por cada actividad puntual | 1,0 |
| | Por la cooperación de carácter continuo | 6,0 |
| | (el ayuntamiento para llevar a cabo sus proyectos deportivos necesita a veces la ayuda de grupos deportivos; la cooperación surge cuando el ayuntamiento pide ayuda en estas ocasiones) | |
| Por acudir a actividades extraordinarias. | Por acudir a competiciones extraordinarias del calendario oficial que se celebran fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa o competiciones ordinarias del calendario oficial de modalidades deportivas, cuando estas modalidades requieran otro ámbito territorial o unas zonas especiales para su práctica<br>Se darán 3 subvenciones como máximo; como mínimo de 150 euros y como máximo de 450 euros, pagándose siempre como máximo el 50% del presupuesto. Entre las solicitudes presentadas se escogerán tres como máximo. Si el criterio principal (desplazamientos fuera del TTHH) no se ha dado, estas subvenciones se darán pero se destinarán siempre a sufragar el gasto de transporte | A cada iniciativa una cantidad fija hasta que se agote el presupuesto |
| El deporte que permite estrechar las relaciones con deportistas de Nafarroa, Zuberoa y Lapurdi | Se darán dos subvenciones como máximo según el informe del técnico municipal | Una cantidad fija |
| Acciones para la normalización del uso del euskera | Técnico/a que desarrolla su labor en euskera | 1,0 |
| | Se supervisará el compromiso adquirido en este apartado; si se incumple se apercibirá a la entidad; un segundo incumplimiento conllevaría la aplicación del artículo 17 de las bases generales | |
| | Acciones para promover el uso del euskera o para euskaldunizar el club | 700,00 € |
| | Entre las acciones presentadas se elegirá una y tras su realización y presentación la entidad recibirá la subvención. Si las acciones propuestas no se consideran de interés no se dará esta subvención | |
| Acciones para promover un deporte igualitario | Acciones para promover un deporte igualitario | 700,00 € |
| | Entre las acciones presentadas se elegirá una y tras su realización y presentación la entidad recibirá la subvención. Si las acciones propuestas no se consideran de interés no se dará esta subvención | |

EK\CV GAO-I-2025-02226

Eskaera egiten duenak, atal bakoitzean bere merituen arabera puntuak jasoko ditu. Irizpide bakoitzari dagokion diru kopurua (ondorengo taulan zehazten den moduan) eskatzaile guztiek jasotako puntu guztien artean zatituko da, eta era horretara kalkulatuko da atal bakoitzeko puntu baten balio ekonomikoa. Balio ekonomiko hori onuradunak atal bakoitzean lortutako puntuekin biderkatuko da, eta atal guztien emaitzen batuketak dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa zehaztuko du.

* Irizpide bakoitzeko asignazioa:

| *Irizpidea* | *Asignazioa (€)* |
|---|---|
| a. Kirol lizentzien kopurua ........................................ | 31.000,00 |
| b. Kirol titulazioak ..................................................... | 4.250,00 |
| c. Herritar guztiei zuzenduriko ekintzak antolatzeagatik ...................................................................... | 1.000,00 |
| d. Udalarekin lankidetza kirolaren sustapenean .... ................................................................................ | 1.000,00 |
| e. Ezhoiko ekitaldietara joateko .............................. ................................................................................ | 1.350,00 |
| f. Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola ........... | 500,00 |
| g. Euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak ................................................................................ | 3.200,00 |
| h. Berdintasuna sustatzeko ekimenak ................... | 700,00 |

Irizpide bati dagokion asignazioa erabiliko ez balitz, diru kopuru hori «kirol lizentzien kopurua» irizpidearen asignazioa gehituko luke.

c, d, e, f, g eta h irizpideak aurreko ikasturteko ekimenei dagokie.

f. Justifikazioa.

Oinarri orokorretako 19. artikuluan jasotakoaren baitan egingo da justifikazioa.

*2. artikulua. Gizarte zerbitzuen alorrean diharduten elkarteentzako 2025eko dirulaguntzak arautzen duten oinarri arau espezifikoak.*

Lezoko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten Gizarte Zerbitzuak arloko elkarte eta entitateei zuzenduriko partidak biltzen ditu.

Gizarte Zerbitzuak eremuan lan egiten duten entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, eta aurrekontuan bildutako ekintzen publizitatea bermatzeko, ondoko oinarriak finkatzen dira:

a. Xedea.

Deialdi honen xedea da 2025. urterako Gizarte eskuhartzearen eremuan ekintzak burutzen dituzten elkarteei zuzendutako dirulaguntzak emateko irizpideak ezartzea. Hau da, gizarte zerbitzuen gaietan, pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta gizarte integrazioa babestu eta sustatzeko ekintzak burutzen dituzten entitateei zuzenduak.

Ekintza edo egitarau hauek honakoak izango dira:

— Elkarteen jarduera arrunta mantentzea.

— Elkartearen jardueraren sentsibilizazio, prestakuntza, informazioa eta zabaltzeko ekintza espezifikoak egitea.

— Elkartearen jardueraren xede diren taldeentzat esku hartzeko programa espezifikoak garatzea.

b. Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute, oinarri orokorretan jasotakoaz gain, irabazi asmorik gabeko ondorengo baldintzak betetzen dituzten Elkarteek:

Quien realiza la solicitud acumulará una serie de puntos por criterio en función de sus méritos. La asignación económica de cada criterio (tal y como aparece en la siguiente tabla) será dividida por la suma del total de puntos que las entidades solicitantes hayan conseguido para el mismo, y así se calculará el valor económico del punto correspondiente a cada concepto. Este valor económico se multiplicará por los puntos conseguidos por cada entidad solicitante en cada criterio y la suma de los resultados de todos los apartados determinará la cantidad a percibir por cada entidad.

* Asignación por criterio:

| *Criterio* | *Asignación (€)* |
|---|---|
| a. Número de licencias deportivas .......................... | 31.000,00 |
| b. Titulaciones deportivas ....................................... | 4.250,00 |
| c. Organización de actividades de deporte para toda la ciudadanía .................................................. | 1.000,00 |
| d. Colaboraciones con el Ayuntamiento en la promoción del deporte .............................................. | 1.000,00 |
| e. Por desplazamientos a actividades no ordinarias ................................................................................ | 1.350,00 |
| f. Actividad deportiva que estrecha relaciones condeportistas de Nafarroa, Zuberoa y Lapurdi ....... | 500,00 |
| g. Acciones para la normalización del uso del euskera ....................................................................... | 3.200,00 |
| h. Acciones para promover un deporte igualitario .. | 700,00 |

Si la asignación correspondiente a algún criterio no se utilizase, la cantidad destinada pasaría a aumentar la asignación del criterio «número de licencias deportivas».

En los criterios c, d, e, f, g y h se hace referencia a acciones de la temporada anterior.

f. Justificación.

La justificación se realizará según lo recogido en el árticulo 19 dela bases generales.

*Artículo 2. Normativa específica reguladora de las subvenciones de 2025 destinadas a entidades sociales.*

El presupuesto del Ayuntamiento de Lezo incluye partidas destinadas a asociaciones y entidades del ámbito de los Servicios Sociales sin ánimo de lucro.

Al objeto de posibilitar el acceso a las subvenciones a las entidades que desarrollan su actividad en el ámbito de Servicios Sociales, y garantizar la publicidad de las acciones presupuestadas, se establecen las siguientes bases:

a. Objeto.

Las presentes bases tienen por objeto regular los criterios de concesión de las subvenciones para el año 2025 a Asociaciones sin ánimo de lucro que realizan actividades en el ámbito de la intervención social, es decir, orientadas a proteger y promover la autonomía personal e integración comunitaria de las personas, familias y grupos en materia de Servicios Sociales.

Estas actividades o programas serán las siguientes:

— Mantenimiento de la actividad ordinaria de la asociación.

— Realización de acciones específicas de sensibilización, formación, información y difusión de las actividades de la asociación.

— Desarrollo de programas específicos para la participación de grupos objeto de la actividad de la asociación.

b. Personas beneficiarios y requisitos a cumplir.

Podrán solicitar las subvenciones reguladas en las presentes bases, las entidades que, además de lo previsto en las bases generales, cumplan los siguientes requisitos:

EK\CV GAO-I-2025-02226

a.— Gizarte zerbitzuekin edo eta osasunarekin zerikusia duten ekintzak garatzea.

b.— Elkartearen eskuhartzea Gipuzkoako Lurralde historikoaren eremuan garatzea.

c.— Dirua irabaztea xede ez izatea, izaera juridikoa edozein dela ere, elkartea, fundazioa, gizarte ekimenerako kooperatiba edo dirua irabaztea xede ez duen beste edozein, eta helburu publiko edo gizarte interesa betetzea sustatzea.

c. Eskabideak.

Oinarri orokorreko 8. artikuluan jasotakoaz gain, eskatzaileak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

— Aurkeztutako programa, proiektu edo jardueraren txosten zehaztuta.

— Dirulaguntzaren xede izango den programaren aurrekontua.

— Entitatearen urteko aurrekontua (gastuak eta sarrerak).

Dokumentazio osagarriari dagokionez, eskatutako dokumentazioaz gain, udalak beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango du aurkeztutako jarduera baloratzeko.

d. Epeak.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira eta egutegiko 10 eguneko epea utziko da eskabideak aurkezteko, argitara ematen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

e. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Udalak elkarte bakoitzari emango dion dirulaguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

— Udalak aurrekontuetan zehaztutako kopurua.

— Guztira Elkarte eskatzaileek lortutako puntuazioa.

Ordainketei dagokienez, erabakian zehaztuko da onartutako dirlaguntza ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den, eskatutako dirulaguntzaren ezaugarrien arabera.

Balorazio irizpideei dagokionez, dirulaguntza ematerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira, baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

a.— Elkartea Lezokoa izatea. Puntu bat.

b.— Elkarteak bere jarduera Lezon garatzea edo bere zerbitzuekin Lezoko herritarrak artatzea. 2 puntu.

c.— Elkarteak egiten dituen jarduerak gizarte zailtasunak duten herritarrei zuzenduta egotea eta pertsona, familia edo beste maila bateko hobekuntza ematea. Puntu bat.

d.— Programan/proiektuan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea. Puntu bat.

e.— Elkarteak Euskara Plana onartuta izatea edo plana prestatzen aritzea aholkulariekin dirulaguntza eskaera egiteko unean. Puntu bat.

f. Justifikazioa.

Gizarte programak garatzeko dirulaguntza jasotzen duten Elkarteek oinarri orokorreko 19. artikuluan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute Udalean 2026ko otsailaren 28a baino lehen.

Elkarteak garatu beharreko oinarrizko lanak egiten dituzten profesionalen soldata gastuak ez dira diruz lagunduko.

Dirulaguntza zuritzen ez bada, dirua itzuli beharko da.

a.— Que desarrollen actividades relacionadas con los servicios sociales y/o sanitarios.

b.— Que tengan un ámbito de intervención dentro del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

c.— Carecer de ánimo de lucro, independientemente de su forma jurídica de asociación, fundación, cooperativa de iniciativa social u otra de carácter no lucrativo, y promover la consecución de un fin público o interés social.

c. Solicitudes.

Además de lo recogido en el artículo 8 de la base general, se deberá presentar la siguiente documentación:

— Memoria detallada del programa, proyecto o actividad presentada.

— Presupuesto del programa para el que solicita subvención.

— Presupuesto anual de la entidad (gastos e ingresos).

En lo que a la documentación complementaria se refiera, además de la documentación solicitada, el Ayuntamiento podrá requerir cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad presentada.

d. Plazos.

Para la presentación de las solicitudes, se establece un plazo de 10 días naturales, a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

e. Cuantía y pago de la subvención.

Para establecer la cuantía de la subvención a conceder se tendrán en cuenta los siguientes puntos:

— La cantidad presupuestada por el Ayuntamiento.

— Puntuación total de las asociaciones solicitantes.

En lo refirido a los pagos, la resolución determinará el sistema de pago único o fraccionado, en función de las características de la ayuda solicitada.

En cuanto a los criterios de valoración, en la concesión de subvenciones se valorarán las siguientes circunstancias, siempre que se hagan constar en la solicitud presentada:

a.— Asociación perteneciente a Lezo. 1 punto.

b.— La Asociación presta sus servicios en Lezo o atiende a personas de Lezo con sus servicios. 2 puntos.

c.— La oferta de servicios o actividades de la asociación van dirigidas a ciudadanos/as con dificultades sociales y que contribuyen a la mejora personal, familiar o de otra índole. 1 punto.

d.— Integración de la perspectiva de género y el enfoque interseccional en el programa/proyecto. 1 punto.

e.— Que la entidad tenga aprobado o esté elaborando el Plan de Euskera con asesores en el momento de realizar la solicitud de subvención. 1 punto.

f. Justificación.

Las Entidades que reciban la subvención para el desarrollo de Programas Sociales deberán presentar en el Ayuntamiento la documentación detallada en el artículo 19 de la base general, antes del 28 de febrero de 2026.

Los gastos correspondientes a salarios de profesionales cuyas funciones correspondan a tareas dirigidas al funcionamiento básico de la Asociación no serán subvencionados.

La no justificación de la subvención supondrá la devolución de la cantidad recibida.

*3. artikulua. Euskaltegian euskara ikasteko (Dirulaguntza programa 1).*

a. Xedea.

Dirulaguntza hauen xedea da euskaltegi homologatu batean euskara ikasten edo hobetzen jardun duten lezoarrei matrikula ordaintzen laguntzea.

b. Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

1. Dirulaguntza eskuratu ahal izango du Lezoko udalerriko euskaltegian edo beste edozeinetan izena eman eta ikastaroak egiten dituen lezoar orok.

2. Dirulaguntza eskatzen dutenek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a.— Lezoko Udalak, euskara sustatzeko martxan jarritako plangintzaren batean parte hartzen duten Lezokoak ez diren norbanakoak (enpresak, merkataritza euskalduntzeko planak, hitzarmengintza, enpresak...).

b.— Euskarazko ikastaroan gutxienez % 75eko asistentzia egiaztatzea, ondoko epeei dagokienez:

— Neguko ikastaroak: Ordu 1 egunean (5 ordu astean). Merkatarien kasuan aplikatzen den ikastaroaren arabera.

— Udako ikastaroak: ez da ordu-kopuru jakinik eskatzen.

— Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan jasotzen den C1 edo C2 mailako ikastaroak: 120 ordu gutxienez.

— Barnetegiko ikastaroak: Hilabete bat gutxienez.

— Etorri berrientzako ikastaroak: AISA ikastaroak edo etorri-berrientzat propio antolatutako ikastaroak.

c.— Asistentzia zehazterakoan, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:

— Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegira joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).

— Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).

— Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).

d.— Lezoko udaleko gizarte zerbitzuek bere programaren baitan, aldeko txosten bidez, ikastaro normal edo berariazkoetan parte hartzea onesten duen kasuetan, ikaslegaiek ez dute matrikularik aurretik ordaindu beharko, Lezoko Udala arduratuko da horretaz. Era berean, aldeko txostenean jasoa dagoen kasuetan, 7. artikuluko a. eta b. puntuetan jasotakoak ere, ez dira bete beharrekoak izango.

e.— Haberen dirulaguntza jasotzeko baldintzak betez gero, Haberi dirulaguntza eskatu izana.

Udako ikastaroetara doazenak:

1. Uda aurreko ikasturtean euskaltegi batean aritu izana lehenetsiko da (% 75eko gutxieneko asistentzia edukita).

c. Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

— Dirulaguntza-eskabide normalizatua (eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.

— Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak...), Oinarri espezifikotako, 1. artikuluko, b ataleko 2.e puntuan jasotzen diren kasuak ezik).

— Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitorpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (eranskina III inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).

*Artículo 3. Aprender euskera en un euskaltegi (Programa de subvención 1).*

a. Objeto.

El objeto de estas ayudas es contribuir al pago de la matrícula de quienes se hayan dedicado al aprendizaje o mejora del euskera en un euskaltegi homologado.

b. Personas beneficiarios y requisitos a cumplir.

Además de lo recogido en los artículos 7, 10 y 16 de las bases generales, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

1. Podrá solicitar la subvención cualquier persona de Lezo que se haya inscrito y realizado cursos en el Euskaltegi de este municipio o en cualquier otro.

2. Quienes solicitan la subvención deberán cumplir los siguientes requisitos:

a.— Personas que no estando empadronados en Lezo, participen en algún plan de euskaldunización impulsado desde el ayuntamiento (planes para la euskaldunización del comercio, convenios con entidades, empresas...).

b.— Acreditar como mínimo la asistencia del 75 % al curso de euskara, en lo que respecta a los siguientes plazos:

— Cursos de invierno: 1 hora al día (5 horas/semana); en el caso de los comerciantes, según el curso que se aplique.

— Cursos de verano: no se establece un número de horas determinado.

— Cursos del nivel C1 o C2 recogidos en el Marco Común Europeo de las lenguas: 120 horas como mínimo.

— Cursos de Barnetegi: 1 mes como mín.

— Cursos para personas recién llegadas: Cursos AISA o los organizados propiamente para personas recién llegadas.

c.— No se considerarán faltas de asistencia los siguientes supuestos:

— Cuando no se pueda acudir al euskaltegi en ese horario por motivos de trabajo (se deberá presentar certificado de la empresa).

— Enfermedad (se deberá aportar certificado médico).

— Necesidad de descanso por embarazo (acreditado con certificado médico).

d.— En los casos en los que los servicios sociales del ayuntamiento de Lezo en base a su programa, a través de informe favorable, estimase oportuno participar en los cursos normales o específicos, lno se deberá adelantar el dinero de la matrícula. El Ayuntamiento de Lezo se encargará de ello. Asimismo, en los casos que el informe favorable lo recoja, no será obligado cumplir, lo recogido en los puntos a. y b. del artículo 7.

e.— Haber solicitado una subvención a Habe siempre que se cumplan los requisitos para poder acceder a la misma.

Los que acuden a los cursos de verano:

1. Se priorizará el haber acudido a un euskaltegi el curso anterior al verano (Teniendo una asistencia de al menos 75 %).

c. Solicitudes.

Además de lo exigido en las bases generales deberá presentarse la siguiente documentación:

— Instancia normalizada de solicitud de subvención (anexo III) debidamente cumplimentada y firmada.

— Justificantes de gasto (Recibos de matrículas, facturas...), excepto los casos que se puedan acoger a lo establecido en el punto 2.e), de la sección b) del artículo 1.

— Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante Instituciones, Organismos, etc. (en el caso de que se haya solicitado alguna otra subvención) o, en su caso, de las que estuvieran otorgadas (anexo III).



EK\CV GAO-I-2025-02226

— Euskaltegiaren ziurtagiria. Bertan ikasturtean egindako urratsaren errendimenduaren eta izandako asistentzia indizeak jaso beharko dira.

— Matrikula aurreratu nahi dutenen kasuan, Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena edo ziurtagiria.

— Lezon erroldatuak ez daudenen kasuan lan egiten duen Lezoko enpresaren edo erakundearen ziurtagiria edota Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena.

d. Epeak.

Eskabide ezberdinak aurkezteko epeak ondokoak dira kasu bakoitzeko:

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasi eta:

— Iraila-ekaina bitartean egindako ikastaroak 2025-07-04ra (barne).

— Uztaila-iraila bitartean egindako ikastaroentzako 2025-10-14ra (barne).

— Hirugarren epe bat zabalduko da aurreko bi epeetatik kanpo geratu direnentzat. Edonola, hirugarren epe honetan, beti ere eskaerak 2025-12-31 (barne) baino lehen egin beharko dira.

e. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan jasotako 481.02.335.00 partida (deialdi honi dagokionez, 20.000,00 euro) baliatuko da. Eskaerak aurkeztutako ordenaren arabera esleituko dira.

Euskara ikasteagatik ordaindutako matrikularen % 100a ordainduko da, gehienez ere 650,00 euro arte.

f. Justifikazioa.

Beka eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa c. Eskabideak atalean jasotzen da.

*4. artikulua. Unibertsitateko udako euskaraz (UEU eta EHU-UPV) emandako ikastaroetan matrikulazioa diruz laguntzeko (Dirulaguntza programa 2).*

a. Xedea.

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) edota Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) euskara hutsean antolatzen dituzten udako ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak ematea.

b. Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

— Ikaslea edota erretiratua izatea, edo langabezian egotea.

c. Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

— Dirulaguntza-eskabide normalizatua (eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.

— Langabea, ikaslea edo erretiratua izatea ziurtatzen duen agiria.

— Ikastaroaren matrikula agiria edota asistentzia ziurtagiria.

— Certificado del euskaltegi en el que se reflejará el índice de asistencia y el rendimiento académico del curso.

— En los casos que se solicite adelantar el pago de la matrícula, certificado o informe favorable de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Lezo.

— En los casos de las personas que no estén empadronadas en Lezo deberán presentar certificado de la empresa o entidad en la que trabaje, o el informe favorable de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Lezo.

d. Plazos.

Los plazos de presentación de las diferentes solicitudes son los siguientes en cada caso:

A partir de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para.

— Cursos de invierno realizados entre septiembre-junio: 04-07-2025 (incluido).

— Cursos de verano realizados entre julio-septiembre: 14-10-2025 (incluido).

— Se abrirá un tercer plazo para quienes hayan quedado fuera de los dos plazos anteriores. En cualquier caso, en este tercer plazo, las solicitudes deberán realizarse siempre, antes del 31-12-2025 (inclusive).

e. Cuantía y pago de la subvención.

En ningún caso la subvención podrá ser superior al gasto de la actividad a realizar quien la solicita (ni en su totalidad ni en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados).

El presupuesto previsto para este programa de subvención se recoge en la partida 481.02.335.00 (para esta convocatoria 20.000,00 euros). La solicitudes se adudicarán por orden de presentación.

Se abonará el 100 % de la matrícula hasta un máximo de 650,00 euros.

f. Justificación.

Dado que la solicitud de la beca se realiza con posterioridad a la realización de la actividad, la justificación se realiza junto con la solicitud. La documentación que se debe presentar está recogida en el apartado c. Solicitudes.

*Artículo 4. Acudir a los cursos de verano universitarios (UEU y EHU-UPV) impartidos en euskara (Programa de subvención 2).*

a. Objeto.

Concesión de subvenciones para la realización en euskera de cursos de verano organizados íntegramente en euskera por la Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) y/o por la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).

b. Personas beneficiarias y requisitos a cumplir.

Además de lo recogido en los artículos 7, 10 y 16 de las bases generales, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

— Ser estudiante y/o jubilado o jubilada o estar en situación de desempleo.

c. Solicitudes.

Además de lo exigido en las bases generales deberá presentarse la siguiente documentación:

— Instancia normalizada de solicitud de subvención (anexo III) debidamente cumplimentada y firmada.

— Documento que acredite estar en paro, ser estudiante o estar jubilado o jubilada.

— Certificado de asistencia al curso o documento de matrícula.

EK\CV GAO-I-2025-02226

— Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak...), Oinarri espezifikotako, 1. artikuluko, b ataleko 2.e puntuan jasotzen diren kasuak ezik).

